

AGOTEN FENOMENOA

Fenomeno hau XVI. mendetik izan da ikertua, baina ez da XIX. enera arte seriotasunez egin. Dena dela, lan gehienak deskriptiboak dira, edo ez dira anekdotatik mamira pasatzen.

1) KOKAPEN GEOGRAFIKOA:

1.1.) Antzeko Fenomenoak:

Juduak, mairuak edo ijitoak kontutan hartu gabe, etnikoki besteengandik ongi bereizten direlako, Europa osoan (juduak eta ijitoak, bedere) hedatzen direlako eta, batez ere, ezagunagoak direlako, agotenarekin antz handiago izan dezaketen taldeak aipatuko ditugu: katolikoak, bere artean ezkontzen direnak eta diferentzia batipat besteek emana dutenak.

«Los vaqueiros de alzada» Asturiasko Mendebaldean aurki daitezke gaur egun ere. Bizimodua ez zuten inguruko nekazariena bezalakoa: udaberritik udazkenara mendian ematen zuten, ardiak eta, batez ere, behiak zaintzen. Familia osoa igotzen zen. Bi etxe zituzten, beraz: goian, bere artean bizi zirelarik, eta behean, sakabanaturik eta beste asturiarrekin, baina nahasi gabe negua pasatzen zutena. Ofizioz ere mandazainak ziren. Nahiz eta elizan eta udal instituzioetan bazterturik eta besteekin ongi ez moldatu, ez zuten integrazeko ahalegin handirik egiten, «vaqueiro» izateaz harro zeudelako: «Los vaqueiros son vaqueiros, etsos mismos lu xurarun, y vale más un vaqueiru que veinticinco aldeanus». Gaur egun, gehienak sedentarizatu dira, eta beste baserriarrek bezala, behi esnea dute diru iturri nagusia. Hortaz, integrazioa bi aldeetatik etorri da.

«Kakous», «caqueux ou cordiers», frantses izenak dioten bezala, sokagileak ziren, Britainian bizi zirenak eta agoten bizimodua eta bazterkeriarekin antz handia zuen taldea osatzen zuten: aparte bizi, artisauzko lan miserablea, esku-bide zibil eta erlijiosorik eza eta herriaren mesprezua.

Palma de Mallorca-ko «xuetas», jatorriz, judu konbersoak omen ziren. Baina konbertsioa zalantzan jartzen zela eta, herriaren mesprezu latza jasotzen zuten. Inkisizioak noizbehinka epaitu eta kondenatu egiten ziu. 1783an berdintasun ofiziala heldu zitzaion Carlos III. enaren eskutik, baina mesprezua mende honen erdirarte iraun izan du. Lanbidez merkatari eta artisauak ziren, zilarginak gehienak.

Baziren beste talde txiki batzu agoten fenomenoaren inguruko lurraldeetan, nolabaiteko kutsua zutenak: Behe Poiteau-ko «colliberts», Guianako «cailluads», Auvernhako «marrans», «gavachos», Poiteauko «calots», Parayko «cacous»...

Frantziako Erdi eta Iparraldean baziren bestetu: San Omer-ko «hautpponsais et lyzelards», Marson-eko Courtisol-ekoak, Bar-Sur-Seineko Riceys-koak, Saone et Loire-ko «sarracens», Brie-ko «thierachiens»...

1.2.) Gahets, Gaffets, Capots, Cagots, Chrestiaas...:

Hauek dira Gaskoinian, Atlantikotik lengadoc-eko Tolosara eta Pirinioetatik Bordelera, gutxi gora behera Garona ibaiak muga egiten duelarik, agotek hartzen dituzten izenak, fenomeno bera bada ere.

1.3) Agotak, Agotes, Agoths:

Agota da euskarazko izena; «agote», gaztelaniazkoa, eta «agoth», frantsesak hartu duena.

Euskal Herrian Nafarroan ikusten ditugu. Lapurdin eta Zuberoan agota gutxi dago; eta Gipuzkoan ustezko agotaren bat etortzen bazen, mugatik kanpora bidaltzen zuten. Aragonen baziren Nafarroa eta Jaca bitarteko herri batzuetan.

2) KOKAPEN KRONOLOGIKOA:

2.1) Erdi Aroa: 1515 arte:

Erdi Aroan legendunei buruzko aipamenak ugariak dira. XIV eta XV. mendeetan, agota eta antzeko hitzak hasten dira, legendunekin nolabaiteko, baina ez erabateko erlazio dutenak.

2.2. XVI eta XVII Mendeak:

1515 urtean Iruñea, Baiona, Jaca, Oloroe, Lescar eta Akizeko elizbarrutietako agotek lortzen dute Leon X. Aita Santuarengandik bulda bat, agotak beste katolikoak bezain kristau onak direla eta eskubide eta eginbehar berberak dituztela esanez.

Nafarroa Garaian, orduan Nafarroa Beheratik banatua, Carlos V. Enperadorek bulda hau berronetsiko du 1524ean. Honen ondorioz, Nafarroako Gortek eta Iruñeko Apezpiku eta Auzitegia ofizialki agoten alde egongo dira, praktikan eskubideak defenditzeko deus egiten ez bazuten ere. Agotek behin eta berriro instituzio hauetara joko dute.

Nafarroa Beheran eta Frantziako Koroapeko instituzioek —Lapurdi eta Zuberoakoak, Oloroeko Foruak, Pabe, Tolosa eta Bordeleko Parlamentuak... —

ohizko bidetik segituko dute, eta auziak agotei bere eginbeharrak betearazteko izango dira.

2.3) XVIII eta XIX Mendeak:

1683an Louis XIV.ak agoten berdintasunaren aldeko agindua eman zuenetik, aipatu instituzioek ohizko jarrera hori aldatuko dute. Baina herria, Britainian bezala, ez zegoen egoera berria onartzeko prest.

Iraultza Frantsesarekin prozesua azkartzen da: berdintasun juridikoa guzti guztientzat, hau da: jaiotzeko desberdintasunaren ezabapena, zerga pribilejiorik eza, derrigorrezko eskolaratzea, soldadutza gizonentzat... Emigrazioak ere lagunduko du erreloak buka daitezen.

Nafarroan, Estatu Liberala nekez inposatzen denez, mantsoago gertatzen da integrazioa. Dena dela, XVIII. mendetik ez zen garrantzizko auzirik izan.



3) AGOTEN FENOMENOA:

3.1.) Kontestu Juridikoa:

Erdi Aroko gizarte feudala hiru estamentutan banatzen zen:

— Estamentu militarra edo noblezia:

Beste estamentuetan bezala, mailak baziren behe nobleziatik hasi Errege edo Enperadoreganaino, tituluak bitarte. Interesatzen zaigun lurraldean oso ugariak ziren titulu gabeko eta ondasun gutxiko nobleak, infantzoinak eta zaldunak, baita kaparetasun hutsekoak ere. Kaparetasun kolektiboa ez zen arraroa: Baztan, Erronkari eta Zaraitzun adibidez, auzo edo bezino guztiak kaparedun edo hidalgoak ziren, eta haietako batean bizi nahi zuenak bere jatorri noblea forogatu behar zuen auzokotzat joko bazuten.

Estamentu honek bazituen eginbeharrak, militarrek batipat, eta pribilejioak ere, aipagarrienak ekonomikoak.

Agotak honetatik aparte zeuden: hasteko, jatorria ez omen zuten «garbia», eta zerga guztiak ez ordaindu arren (diru gehiago biltzea omen zen goi mailako instituzioen berdintzeko ahalegina), ez zuten nobleen eskubide eta eginbeharririk.

— Estamentu erlijiosoa edo klergoa:

Honetara ez zen jaiotzagatik ailegutzen, baina ez da apaiz, fraide edo moja agotarik ezagutzen.

Hala guztiz ere, agoten auzategi asko monastegi, eliza edo ospitale baten babespean sortu zen. Harremana bitxia zen, ez bait dirudi instituzio horren jopu edo zerbitzari zirenik. Adibide bat, Baionako S. Leon auzoa, hiriko harresitik at. Gaur egun badira oraindik S. Leon izeneko ospitale eta kanposantua.

— Herri xehea:

XVI. mendetik aurrera Mendebaldeko Europan herritar gehienak libreak ziren, oso maiz aintzineko jopu ziren jaunaren maizter bilakaturik. Baziren baserritar jabedunak; aberatsak, ordea, oso gutxi. Hirietako populazioa ere estamentu honetakoa zen, aberastasunaren arabera mailetan banatua.

Estamentu zabal honetan ere ez zuten agotek parte hartzen. Monastegi edo jauregi baten menpe —Baigorriko Etxauz, Arizkungo Ursua edo Elbeteko Jaroia, besteen artean— maiz egon arren, ez ziren jopu edo maizter arruntak. Lanbidez artisauak, ez ziren besteen gremioetan biltzen.

3.2.) Auzo Kontestua:

Herri xehearengandik gehien bereizten zituena zen biztanle bai, baina bezino ez zirela. Bezino izateko behar zen: katolikoa, agota, judu, mairu, ijito, herese edo antzekoekin ez nahastea —hau da: odol «garbia» izatea—, lanbide «txarretan» ez aritzea (honen zerrenda ez zen berdina eskualde guztietan), kaparetasuna eskatzen zuten herrietan, hauxe forogatzeari, udal kontribuzioak ordaintzea, auzolanetan parte hartzea eta beste eginbehar komunalak betetzea.

Eskubideak, berriz: lur komunaletako baso, larre, belar, ur, iratze, egur, abereen bazkaleku eta abarretaz gozatzea, luberritzea, defentsan parte hartzea —eskubide eta obligazio, egia esan—, arropa tipikoak jatztea, elizkizunetan eta eginkizun sozialetan bakoitzari sexu, estatu zibil edo karguz zegokion lekuan parte hartzea, udal postuetan hautagai eta hautesle izatea, etxe edo borda berriak eraikitzea...

Agotek, jatorri garbia ez zutenek, kristau zintzoak izan arren, ez zituzten eskubide horiek gozatzen, ez, behinik behin, osorik eta arazorik gabe, nahiz eginbehar batzu bete.

Pentsatzekoa da, guzti honen ondorioz, uzta biltzeak, artazuriketak, ereiteak eta beste edonolako auzolanak, festak, jokoak, bataio, eztei —nahiz eta zenbait ezkontza «mixto» izan, oso gaizki ikusiak zeuden eta hilketak, eta solasaldiak ere agotek haien artean egin beharko zituztela, ez bait zuten inolako onespenerik izaten.

Azken finean, herri bat osatzen zuten beste herri baten barrutian, beste herrietako agotekin harreman handiago zuten bizilagunekin baino. Geografikoki ere arrunt normala zen mugak ongi bereiztea ondoko auzoekin: baso bat, bide bat, erreka bat edo halako zerbaitekin.

3.3. Erljioa:

Ez da teologia arazorik azalzen, denek onartzen bait zuten Erromako Elizaren ortodoxia.

Baina erritoetan izugarri isladatzen zen gizartearen hierarkia: noble tituludunak, udal kargoak, etxeko jaunak, mutilak eta mutikoak, etxeko andreak, neskak eta neskatilak, eta gero agotak, orden hori jarraituz.

Agotek eskatzen zuten bakoitza sexu, adin eta ezkontzaz zegokion multzoan egoteko, nahiz horietan azkenekoak izatea onartu.

Kontutan hartu behar da garai hartan erritoak ugariak zirela, eta inporta handiagokoak: mezak, prozesioak, ofrendak, hiletak, funtzioak, bedeinkazioak, bataioak, ezteiak... eta jai gehiago ospatzen zen: S. Anton, Kandelero, S. Blas, Santa Ageda, Garizuma eta Aste Santua, Besta Berri, S. Juan, Santiago, Abuztuko Amabirjina, maiatza eta iraileko Gurutze Santua, Samiel, S. Martin, Egu-berri eta beste asko, maiz ekintza sozial baten garrantzia adierazteko errito batekin ospatzen zirenak: artzainen partitze edo itzultzea, soroen bedeinkapena, errenten pagatzea, feria egunak eta abar.

Nafarroa Garaian ez zen, Frantzialdean bezala, ate berezirik elizetan, baina ez zen arraroa bataiarri edo ur bedeinkatuaren ontzi desberdinak aurkitzea.

3.4.) Ekonomia:

Nafarroako Mendialean, Iruñetik Iparraldera, gutxi gora behera, nekazaritza arras pobrea zen. Ogia, garai hartako elikagai nagusia, eskasa izanik, inportatu behar zen. Artoaren hedapenak XVIII. mendean egoera ekonomikoa lasaituko du, eta honekin batera barealdi soziala ekarri.

Eskualde honetan lur komunalen garrantzia izugarria zen, eta da zenbait herritan, Baztan kasu ezin zen lur pribatuekin soilik bizi: baserriko bizitzarako behar beharrezko ziren egur, zur, harri, iratze, gaztaina, belar, ur, kisu, horbel, eta abar lur komunaletatik eskuratzen ziren. Alde batetik laboreen urria eta bestetik aziendak bazkatzeko mendira jo behar. Etxe bat eraikitzeko ere, gaiak komunaletik.


Hona hemen bezino izateko garrantzia: hauen kopurua (etxeek zuten auzo eskubidea) fijoak zen: errekurtsio ekonomikoak murriztak zirenez gero, oztopo kantidadea jartzen zitzairen arrotzei. Adibidez, kaparetasuna forogatzeko diru asko gastatu behar zen, eta dirudun ez zirenak traba hori nekez gaindituko zuten, auzatasuna lortzeko.

Horrela ulertu behar da agoten arazoa: krisialdietan problema latzak izango zituzten komunalak aprobeztatzeko. Lasaialdi ekonomikoetan, ostera, ez zitzairen debeku ofiziala betetzera behartzen.

Arazoaren gakoa, bada, ekonomikoa da hein handi batean: ondasunak bezinoendako ziren, eta sobran zegoena besteentzat. Azken finean, beste kontestuetan ikusi dugun agotekiko marjinazioa koherentea da benetazko marji-

nazioarekin: askoz errazagoa da, edozergatik baliabide ekonomikoak gutxiago direnean, bizitza sozialetik guztiz kanpo daudenei errekurtsio horiek debekatzea, nolabaiteko integrazio legal, erlijioso edo soziala lortu dutenei baino. Eta horregatik ere oso garbi uzten zen, inoiz ezkontza mixto bat ematen zenean, horren ondorengoek ez zutela auzo eskubiderik jasoko. Integratzeko bide guztiak itxi egin behar ziren.

Badago beste arlo ekonomiko bat aipatu gabe utzi ezin dena: base-riaz bizi izatea zaila bazen, agotentzat zailago eta artisautzari lotu beharko zitzaizkion aurrera aterako baziren. Eta beren espezialitatean ez zuten konpetentziarik. Beste talde baztertuek bezala, —moriskoak, adibidez— ongi eta merke lan egiteaz gain, bezinoek agotatzat hartuko zituzten beldurrez ez ziren lanbide horietan ari izaten. Halako zerbait gertatu zen Gaztelan medikuntza eta juduekin, mediku guztiak judu ez izan arren, eta are gutxiago judu guztiak mediku. Agoten paper ekonomikoa hagitz inportantea izaki, etxeak altxatzen eta bertan bizi izaten uzten zieten, nahiz eta mesprezu handia jaso, eta mesprezu bera ere kontserbatzeko eta behar zenean areagotzeko ideologia osatu zuten bezinoek, «betikoek», «normalek», «odol garbikoek», beren status sozio-ekonomikoari eusten zion ideologia, alegia.



Agirietan agertzen ez direlako, ezin da jakin zer gertatu zen 1515eko Buldan apatzen diren Iruñetik Hegoaldeko herrietan azaltzen ziren agotekin. Baina, horrexegaik, dokumentorik ez dagoelako, eta agotak auzietan soilik aipatzen direlako pentsatzekoa da integrazioa lortuko zutela. Datuen faltan, hipotesi hau plazara daiteke: gutxi bazien, eta aipatzen ziren herri eta hiriak Iparraldekoak baino handiagoak zirenez, errezagoa izanen zen integrazioa. Eta, batez ere, errezagoa ekonomikoki desberdinak zirelako: hemen ez zen ogi falta; eskulangintza ere garatuago zegoen; lur komunalen eragina ez erabatekoa; kaparetasun kolektiborik ez zen, eta bai berriz noble tituludunak; pioiak eta maizterrak, eta lur puska arrendatu edo propioarekin ere jornalaz bizi zirenak ugari... Hau da: beste egitura sozial bat.

4 KONKLUSIOAK:

4.1.) Sortutako galderak:


Lehen konklusioa, eta nagusia, hauxe da: agoten fenomenoak ikertzeko gizarte osoa ikertu behar da. Eta alderantziz: honen bidez hobeki ezagutu daiteke

gizartea. Bataren gora-beherak bestearenekin lotuta doaz. Horregatik diogu fenomenoa zela: gutxi inporta dute agotek edo bere ondorengo biologikoek ez bada arazorik sortzen. Horren froga garbia da ez dugula istiluez landa apenas berririk. Ez zuten ezaugarri propio eta berezirik, marjinazioak berak markatuak baizik.

Sortutako galderak, beraz, gizarteari buruzkoak dira:

Agoten jarrera ez bada aldatzen, zergatik une batzuetan istiluak larriagotzen dira? Zergatik une batzuetan ez zieten oztoporik jartzen komunalak aprobeztatzeko, eta besteetan eragozten zitaien?

Gauza bera gertatzen da elizkizunetan: Izaban, esaterako, hamar urtez beste gizonekin batera meza entzunez gero, korupera bidali zuten agota bat, «zegokion tokira». Itauna alderantziz egin daiteke: zergatik ez zuten hasi hasieratik behera bidali?, zer pasatu zen hamar urte eta gero? Onartze sinboliko horrek bene-tazkoa ekartzearen beldur?



AGOTAK EUSKAL HERRIAN
IRUÑETIK HEGOALDERA EZ DA HAIEN AZTARNA AURKITZEN XVI. 2. ERDIALDETIK

Ezkontza mixtoekin ere halako zerbait: XVI. mendean, Zaraitzun, agota bat hango emakume bezino batekin ezkondu, semea izan eta urte batzu geroago bota egin zuten. Beste ibarretan ere agotendako trabak gero handiagoak ziren, baina ez hauendako bakarrik, beste herrietako bezinoentzat ere bai, hain gogorak ez baziren ere.

Gizartearen azterketa sakona egin beharko litzateke galderei erantzuteko: krisialdi ekonomikoak, sozialak... Badakigu Burgin herri osoa eragin zuen sorginkeria kasu bat eman zen urtean bertan agoten aurkako auzi batean ere sartu zirela: estualdian komunitatearen harremanak lotu eta itxi denen «etsai» denaren aurrean? Arizkunen ere, XVII. mendean auziak bezinoen artean eguneroko ogia ziren, baita Ursuako jaunarekin.

Iparraldeko protestanteen mehatxuek eragina izan zuten gizartea gero eta itxiago eta eksklusibistago bilakatzeko, odol garbitasuna obsesiboa izateraino?

Lasaialdi ekonomiko eta sozialarekin era guztietako auziak murrizten dira, eta agotenak, behintzat, ez dira herri edo bailara oso baten kontrakoak, aurreko mendeetan bezala.

Dena dela, agotei buruz zerbait gehiago ere jakin beharko genuke: demografia datuak —jaiotze, ezkontz, hilkortasun tasak, etab.— eta bestelakoak: aberatsik bazen, hauen kopurua, beste agotekiko harremanak... Jakin badakigu Aita Santuarengana joateko ordezkariak Akize, Oloroe, Lescar, Baiona, Jaca eta Iruñeko elizbarrutietako agoten izenean hitz egin zutela. Halako batasuna mantendu egin zen? Haien arteko auziren bat edo beste izan zuten, doteak zirela eta. Beren arteko harremanak eta bezinoen artekoak igoal igoalak ziren, edo marjinazioak markatu egiten zituen?

Baina gizarte «normalari» buruz gutxi baldin badakigu, agotei buruz are gutxiago. Dokumentorik bada, auziei esker da, eta zaila da arrunt hortik funtsezko datorik ateratzea mentalitateaz, usadioez edo eguneroko bizitzaz.

4.2.) Hipotesia:

Jatorriari buruz gutxi ean daiteke: teoria asko dago, dokumentatu ezinak gehienak, baina ia denek eritasun fisiko bati beste arimazko bat eransten diote, heresiaren bat edo: azken finean, Jainkoaren zigorra.

Benetan inporta duena ez da jatorria, marjinazioa iraunarazi duen ideologia ezik. XVI. mendean inork ezin zuen ziurtatu «nondik» zetozen, baina «besteek» jatorri zikina zutela pentsatzen bazuten, ez zen gehiago behar. 1492az geroztikako judu konbertsoek ofizialki ere baztertuak zeuden, katolikoak izan arren. Halako zerbait gertatzen zen agoteekin. Noblezia, odol argi eta garbia heredatzen bazen, «orbana», «odol zikina» ere bai. Inork ez du forogatu agota guztiek etorri bera zutenik, marjinazioaren hasieratik talde homogeneoa zirenik. Jatorri ezezagun, hau da, susmagarri izan zezakeen edonor agotatzat har zitekeen.

Homogeneitatea, beraz, marjinazioak zekarren. Horregatik Britainiako «kaku» taldeak antz handia zuen agotekin, inolako harreman fisiko ez geografiko

ez izanik ere, eta seguru asko, ezta sikiera elkarren berri. Izan ere, bazterten zituzten gizarte biek oinarri ideologiko berdintsua zuten: Europa Mendebaldeko baserriar katolikoena.

«Arraza» hitza maiz aipatu bada ere, inork ez du egiaztatu arraza bat zirenik. Aitzitik, Rochas-ek Euskal Herriko agotak hiru tipotan bereizten ditu, bakoitza bere euskal tipoari dagokiola esanez.

Bazterkeriaren arrazoa, bada, honetan kokatzen dugu: populazioa eta baliabide ekonomikoen oreka hauskorrean. Hura mantentzeko gizarteak zuen egitura ekonomikoari gaineratu behar zaio egitura espiritual eta ideologikoa. Guzti hark munduaren ikusmolde koherente bat ematen zuen. Egitura ekonomiko eta sozialak aldatzen direnean, poliki eta kontraesan handiekin, ikusmoldea ere kanbiatuko da. Hala gertatu zen Iraultza Frantsesarekin Aintzineko Erregimena erori eta Estatu Liberala inposatzen denean.


Gizarte pobre eta guztiz hierarkizatuaren aurrean gaude, oso manikeoa eta aristokratizantea: denek nahi dute maila sozialetik igo, baina, bestaldetik, beheko mailekoak ez daitezten parean jar. Traba ekonomiko eta sozialak ugaldtu egiten dira XVI. mendetik aurrera: odol garbitasuna ezinbestekoa da inor izateko, eta hori ezin zen erosi (teorian). Erljioak honetan lagundu egiten zuen: bataiatu arte eta jaio orduko denek zuten Adam eta Ebarengandik jaso bekatu orijinala. Nola ez sinetsi, bada, gorputzekoak bezala arimazko akats eta bertuteak gurasoengandik seme-alabengana pasatzen zirela? «Nolako egurra, halako ezpala» bezalako esaerak badira euskaraz eta erdaraz.

Gizarte honek bere tentsio eta beldurrak talde marjinauengan isladatzen zituen, kontraesan ugari ematen zelarik: agotak ziren, testimonioen arabera, harroak eta apalak, traketsak eta trebeak, gaisotasun fisiko edo espiritual batek dejeneratuak eta «normalen» erien aurrean osasun onekoak, koldarrak eta ausartak, alferrak eta langileak, ignorante hutsak eta sekretu majikoen jabeak, deformatuak eta ederrak, beltzaranak eta kolore argikoak... Karakteristika guzti hauek ez dira apologista edo detraktoreek emanak, herri xehearen kontakizun, kanta eta sineskeretatik aterak baizik. Ijito, judu, mairu, sorgin eta eskaleek ere jasotzen zuten halako sentimendu bikoitza: bizitza sozialetik kanpo, mesprezagarriak; baina etorkizuna igartzeko; gaitz sendaezinak sendatzeko; desio konfesaeezinak lortzeko edari edo hauts majikoak egiteko; madarikazio izugarriak botatzeko ahalbideak ere zituztela sinesten zuen jendeak, guzti horiek jaiotzetik etortzen zitzaizkien. Horiekin batera, ogibide ez prestu eta txiroetan arituz, altxor liluragarrien aipamenak eta inolako mugarik gabeko sexu harremanak leporatzen zitzaizkien.

Honek sortarazten zuen, gizarte eta erlijio ofizialetik at egonez, erretxazoa, baina era berean nolabaiteko erakarpina. Azken finean, gizarteak bere buruari ezar ezin zizkion joera heterodoxo guztiak, talde marjinauetan adierazten zituen.

Eta horregatik, egoera aldatu ez zen artean, iraun zuen marjinazioak bai ekonomikoki, bai ideologian, besteek bezala, agotek bere eginbeharra zutelako, gogoaren bortxan bazen ere.

AGOTAK ETA ANTZEKO FENOMENOAK



Estatu liberalaren inposatzeak aldaketak ekarriko ditu; edo, hobeto esanda, lehen hasi joera batzu indartu eta inposatu, ofizialtasun eta kontestu juridiko-ekonomiko-politiko eta sozial baten indarra emanaz.

Jatorri eta pribilegioek diruari utziko diote lekua: lehenago garrantzitsua bazen, orain, nahitaezkoa. Indibidualismoa, konpetentzia eta beste balore barriak bultzatzen dira.

Nekazal giroko herrietan beti beranduago eta nekezago ezartzen dira ideia berriak, baina beti iristen dira, eta bere gisara konkretatu: gure kasuan, adibidez, soldatazko lanak duen garrantzia eta autokontsumoko baserri bizitzatik merkatal produkziarako baserrira pasatzean, honek suposatzen duen emigrazio izugarriak XIX. mendetik Mendebaldeko Europako nekazarien mundua aldatzea eta maiz bukatzea ekarriko du. Gizarte egitura desitxuratzen denean, honen berezko fenomenoek egoera berriak sortarazikoei ematen diete bidea.

5) OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA:

- AGUIRRE DELCLAUX, M^a Carmen: «Los Agotes». Príncipe de Viana. Iruñea. 1978.
- ANTOLINI, Paola: «Los Agotes. Historia de una exclusión». Istmo. Madrid. 1989.
- IDOATE, Florencio: «Documentos sobre agotes y grupos afines en Navarra». Príncipe de Viana. Iruñea. 1973.
- MICHEL, Francisque: «Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne» Elkar. Donostia 1983.
- ROCHAS, Vicent: «Les parias de la France et de l'Espagne». París. 1876.

JABIER KEREJETA ERRO